

## «Etorkizuna ez da uste bezain futurista izango»

---

02 iraila, 2022 [Elkarrizketa](#) 505



**Jon Ander Camposek** (Urretxu, 1995) lau hilabeteko egonaldia egin du Mark Zuckerberg-en Meta enpresan. Ingeniaritza informatikoa ikasi zuen eta adimen artifizialari eta hizkuntzaren prozesamenduari buruzko masterrak egin zituen. Apple enpresan ere lan egin zuen.

### **Ingeniaritza informatikoa ikasi zenuen. Zergatik?**

Umetatik zaletasun hori izan dut. Zenbat eta denbora gehiago eraman honetan, argiago dut: informatikan gauzak asko aldatzen dira eta nik etengabe berritzeko beharra sentitzen dut. Bi urte barru zertan ariko naizen ez jakiteak grina mantentzen laguntzen dit. Ez naiz egunero oso antzekoak diren lanak egiteko jaioa.

### **Ingeniaritza Informatiko ikasketak zuk espero bezalakoak izan al ziren?**

Oso gustura aritu nintzen. Kanpoan zenbat eta gehiago ibili, orduan eta gehiago baloratzen dut. Atzerrian eta unibertsitate entzutetsuetan dena hobeto egiten dutela uste dugu, baina Donostiako Informatika fakultateko ikasketen kalitatea oso handia da.

### **Bi master egin dituzu.**

Gradu amaierako lana Ixa taldean egin nuen eta beraiek master berezi bat zuten. Ixa taldea Informatika

fakultateko ikerkuntza talde handi bat da. Hizkuntzaren prozesamenduaren inguruan lan egiten du. Bestalde, laugarren maila Belgikan egin nuen eta han ere master bat egiteko aukera eman zidaten.

### **Gradu amaierako lana aipatu duzu. Zeri buruzkoa egin zenuen?**

Hizkuntzaren prozesamenduari buruz. Masterra eta doktoregoa ere gai horren ingurukoak izan ziren eta, egun, horri buruz ikertzen dut. Hizkuntzaren prozesamenduz ari garenean, ordenagailuei hizkuntza ulertzeko eta erabiltzeko gaitasuna emateaz ari gara. Horren azpian, atal asko daude. Gaur egun horren ezaguna den itzulpen automatikoa, adibidez. Eta Google-en bilaketa bat egiten dugun bakoitzean, horren atzean hizkuntzaren prozesamendua dago. Ez gaude hizkuntzaren prozesamendua terminoa entzutera ohituak, baina gure egunerokotasunean erabiltzen ditugun hainbat tresnen atzean dago. Bestalde, hizkuntzen prozesamendua adimen artifizialaren alor oso garrantzitsua da. Azken finean, adimen artifizialaren helburua makina adimentsuak sortzea da eta hizkuntza adimenaren erakusle nagusietako bat da.

### **Zeri buruzkoa da zure doktoregoa?**

Elkarrizketa sistemei buruzkoa. Makinei elkarrizketetan parte hartzeko ahalmena ematea da helburua. Amazon-en Alexa eta Apple-ren Siri produktuak dira. Guk produktu horien atzean dagoen ikerketa garatzen dugu.

### **Horretaz guztiaz gain, hainbat enpresetan lan egin duzu.**

Doktoregoa hasi nuenetik, hainbat enpresa handitan lan egiteko aukera izan dut. Iaz Apple-ren Siri taldean lan egin nuen, baina pandemia zela eta, etxetik lan egin behar izan nuen. Aurten, Meta enpresaren egoitza nagusian lan egin dut. Gure alorrean, unibertsitatean egiten dugun ikerkuntza eta enpresetan egiten dena oso erlazionatuta daude eta hori oso ona da. Enpresetan, produktu baten atzean dagoen ikerkuntzaz gain, ikerkuntza orokorra dute. Metan ikertu dudana, unibertsitatean ikertzen ari naizenarekin oso erlazionatuta dago. Elkarrizketa sistemetan lan egin dut, eta nire ikerkuntza guztia publikoa izango da. Edonork irakurri eta erabili ahal izango du.

«AEBetako enpresetako lan baldintzak oso onak dira, baina unibertsitate publikoan lan egitea politagoa iruditzen zait»

«Euskara oso-oso ondo kokatua dago eta horren arrazoietako bat duela 30 urte unibertsitatean sortu zen Ixa taldea da»

### **Facebook-en sortzailearen enpresan lan egitea aukera bikaina da.**

Bulego nagusietan lan egin dut, gainera. Informatika ikasi dugun guztiontzat Silicon Valley ezagutzea sekulakoa da.

### **Zer azpimarratuko zenuke bertan ikusi duzunari buruz?**

Tamaina. Bulego nagusia Urretxu eta Zumarraga baino handiagoa da. Ikaragarria da. Autobusak daude toki batetik bestera joateko. Egonaldi bat egitera joan garen ikerlariak 2.500 inguru gara. Pentsa zenbat ginen guztira! Bestalde, langileek erraztasun handiak dituzte: gosaria, bazkaria eta afaria doan, kirol zerbitzuak, arropa garbitzeko zerbitzua, ile-apaindegia... dena doan. Nire ustez, helburua jendeak han ahalik eta denbora gehien pasatzea da. Baina pandemiagatik-edo, hori aldatu egin da eta langile gehienek etxetik lan egiten dute.

### **Zer diozu zure etorkizunari buruz?**

Maiatzean doktorego tesia aurkeztu behar dut. Ondoren, ez dakit zer egingo dudana. Orain arte, gustura

egon naizen tokian jarraitu dut. Baina doktoregoa egin ondoren, unibertsitatean jarraitzea ez da erraza. Doktorego ondorengo programan sartzeko, diru-laguntza eskatu behar dut berriro eta erantzunaren zain gelditu. Beste aukera bat enpresa batean lan egitea da. AEBetako enpresetako lan baldintzak oso onak dira, baina ez dut nire burua Euskal Herritik urrun ikusten. Gainera, unibertsitate publikoan lan egitea politagoa iruditzen zait.

### **Nolakoa izango da etorkizuneko bizimodua?**

Duela urte batzuk ikerkuntzatik produktura zegoen denbora tarte oso handia zen. Denbora hori txikitu egin da. Egun ikertzen ari garena, bizpahiru urte barru ikusiko dugu. Baina etorkizuna ez da uste dugun bezain fantastikoa edo futurista izango. Gehien funtzionatzen duten produktuak sinpleenak eta erabilgarrienak dira. Google bilatzailea eta itzultzaile automatikoa, adibidez. Ez dut uste mundu birtualak horrenbesteko arrakasta edukiko duenik. Metak inbertsio handia egin du horretan eta oso argi dute hori izango dela etorkizuna, baina nik oso urruti ikusten dut. Kontua ez da produktua garatzea bakarrik: jendeak behar hori ikusi behar du eta nire inguruan ez dut behar hori nabaritzen. Mundu birtual ideal bat sortu aurretik, teknologia asko garatu daitezke gure mundua hobetzeko. Mundu errealean inbertitu beharko litzateke, jende errearentzat. Egia da ere, metabertsoa garatzeko bide horretan, egunerokoan lagungarriak diren gauzak lortuko direla.

### **Euskara ondo kokatua al dago mundu horretan?**

Oso-oso ondo kokatua dago eta horren arrazoietakoa bat duela 30 urte Informatika fakultatean sortu zen Ixa taldea da. Euskarazko Wikipediak indar handia du, oso itzultzaile automatiko sistema onak ditugu... Hizkuntza prozesamendu munduan adimen artifizialeko sistema handiena egin dute eta alemaniera ez dago eta euskara, ordea, bai. Horren arrazoietakoa bat, proiektu horren atzean Ixa taldeko jendea dagoela da. Euskara oso ondo kokatua dago, baina ezin gara erlaxatu: teknologiak garrantzi handia du eta mundu teknologikoan ez dagoen hizkuntzak etorkizun gutxi du.



- Aurreko albistea

« [«Poz ederra hartu nuen G2H bukatu nuenean!»](#) »

### **Utzi erantzuna [Utzi erantzuna](#)**

Zure e-posta helbidea ez da argitaratuko. Beharrezko eremuak \* markatuta daude

Ondorengo **XHTML** etiketa eta atributuak erabil ditzakezu: `<a href="" title=""> <abbr title=""> <acronym title=""> <b> <blockquote cite=""> <cite> <code> <del datetime=""> <em> <i> <q cite=""> <strike> <strong>`